



Eneko Carretero 5. sailkatu da Espainiako Bloke Txapelketan, Bartzelonan

- *Gazte mailan ere parte hartu zuen eta zilarrezko domina irabazi eskalatazailerak*

2018ko maiatzak 14. Bloke eskaladako (boulder) Espainiako Txapelketan Eneko Carretero izan da gehien nabarmendu den euskal selekzioko ordezkaria. Zumaiarra lehen aldiz lehiatu da nagusien mailan eta finalean sartu ostean 5. sailkatu zen atzo, igandea. Bezperan, gazte mailako txapelketan ere parte hartu zuen, eta han bigarren amaitu zuen 18 urtez azpikoen kategorian, podiumera igoz. Bartzelonako Climbat la Foixarda eskalada kiroldegian jokatu dira txapelketa hauek.

Blokean, 2018ko Euskal Herriko Txapelketa irailaren 29an egingo da, Donostiako [The Factory Boulder](#) eskalada gunean.

Espainiako Bloke Txapelketan euskal selekzioko ordezkariak:

Maila Nagusian

1.Javier Cano (Extremadura) 2.Jerome Gonzalez (Katalunia) 3.Alejandro Crespo (Extremadura) 5.Eneko Carretero (EMF) 18.Tasio Martin (EMF) 30.Bittor Esparta (EMF) 45.Martin Urrutia (EMF)	1.Maria Alarcón (Valencia) 2.Rut Monsech (Katalunia) 3.Ana Belén Argudo (Madrid) 15.Irati Zabala (EMF) 18.Irantzu Porres (EMF)
--	--

20 urtez azpikoak

7.Tasio Martin (EMF)	5.Irati Zabala (EMF)
----------------------	----------------------

18 urtez azpikoak

2.Eneko Carretero (EMF) 14.Mikel Cuerda (EMF)	7.Aitziber Urrutia (EMF) 13.Izaro Azkue (EMF)
--	--

16 urtez azpikoak

6.Joanes Esparta (EMF) 12.Martzel Vikario (EMF) 14.Aimar Uson (EMF) 16.Borka Bernalte (EMF)	6.Haizea Oses (EMF) 16.Lucia Arlanzon (EMF) 17.Ilia Uriarte (EMF)
--	---

euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION



8-14 urte bitarteko gazteentzako Eskalada Topaketak Gasteizen

Euskal Mendizale Federazioak eta [Arabako Rokodromoen Teknikariak](#) elkarrekin Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntzarekin 8 eta 14 urte bitarteko gazteentzako eskalada topaketa antolatu dugu maiatzaren 26rako. Gasteizko [Ariznabarrako eskalada murruan](#) burutuko da topaketa, goizez.

9:30etik 13.30era bitartean nahi beste eskalatzeko aukera izango dute gazteek, bai sokaz lagundutako bideetan zein blokeetan. Bide batzuk Top Ropean eskalatuko dira eta beste batzuk sokaburu eskalatzeko aukera ere eskainiko da, beti ere ardura hartuko duten teknikariek lagunduta.

Topaketa parte hartzailea izango da, ez lehiakorra, beraz ez da sailkapenik egongo jardueraren amaieran. Izen emateak 10€ balio du, eta ondorengo esteka bidez osatu liteke:

[IZEN EMATEA](#)



EMF-FVM